

Bestalde, erljioaren eta mitoen hizkera sinbolikoaren espezifikotasunaren eta balioaren arazoak hartu dute garrantzi handia gaurko erljio-antropologian.

Ik. Erljio-zientziak.

Paulo Agirrebaltzategi

Erljio-fundatzailea

Erljio-eratzzailea ere esaten da. Horrela deritza erljio berriren bati oinarriak ipini dizkionari, edota bere *predikuaren bidez bere ingurura ikasle-multzoren bat bilduz, erljio berriaren eraikitzea bideratu duenari.

Eratzzailea edo fundatzailea Jainkoagandiko goi-agerkudean edo bere barne-argitzapenean oinarritu ohi da; baina horrekin batera, nolabaiteko *deiera eta *misio trazendenteari heldu ohi dio eratzzaileak bere lanbiderako.

Erljio-eratzzaileak halako balio nagusi batzuk aukeratu ohi ditu erljiozko tradizioetik, bere mezu osoaren muina izango direnak. Tradizio horren ukapena, onarpen partziala nahiz aldaketa gerta daiteke erljio berria.

Sarritan eratzzailearen izena hartu ohi du gerora erljioak, nahiz eta eratzzaileak berak bestelakoa eman izan: *budismoak, Buda eratzzailearengandik; mahometismoak, Mahomet profetarengandik nahiz eta erljioaren izen egokia islama edo *islamismoa izan; *kristautasunak, Jesusi eman zioten Kristo deituratik.

Ik. Fundazio-erljioa; Erljio historikoa.

Erljio-gerra

1. Orokorki harturik, erljiozko zioengatik gizarte edo gizamultzo bi elkarren kontra armaz borrokatzea da. Nekez egon ohi dira horrelakoetan erljiozko zioak bestelakoekin nahasi gabe.

2. Bereziki, ordea, erljio-gerrateak izena eman zaie, Frantzian, 1562-1594 bitartean, hugonoteen edo kalbindarren eta katolikoaren artean gertatu ziren armazko borroka odoltsuei. Gertakaririk gogorrena S. Bartolome Gaueko sarraskia, katolikoek milaka protestante garbitu zituztenekoa, izan zen.

Nantes-eko Ediktuarekin (1598an) bukatu ziren gerrate horiek.

Ik. Jihad; Erljiozko jazarpena.

Erljio-gisakoa

Paul Tillich-ek erabiltzen duen quasi-religion esamoldearen euskarapena; erljioaren ordezkoa adierazten du.

Ik. Erljiokara; Sasi-erljioa; Erljioaren ordezkoa.

Erljio-mintzaira

Ik. Sinboloa; Hizkuntza eta erljioa.

Erljio-obrakuntza

Ik. Erljiozko praktika.

Erljio-pedagogia

Teologia praktikoa edo *pastoraltzaren parte da, fedeko ezagutzak eta biziera komunikatzeko eta fededuna horretan gidatzeko erljiozko hezieraren abiaburuak, helburuak, metodoak eta baliabideak estudiatzen dituen. Erljio-pedagogia eta katekesia alor oso hurbilekoak dira eta sarritan berdindu egiten dira. Ilustrazio-garaian hazi eta garatu zen bereziki.

Ik. Katekesia; Pastoraltza.

Erljio-politika

Agintari zibilek --edota alderdi politikoek-- erljiozkoari buruz dituzten abiaburu teorikoak nahiz jokabidea beren praxi politikoan. Erljioa agerkari soziala denean --ez norbanakoarena bakarrik-- eta erljiozko elkarte eta erakundeek gizartearen barruan indarra eta garrantzia hartzen dutenean, indar politiko denek eduki ohi dute nolabait zehazturik beren ideologia, taktika eta estrategia zer erljiozkoari buruz: aldekoa, kontrakoa ala neutrala.

Batzutan izan daiteke politika hori, erljioa jazartzearena, nahiz baztertzearena, nahiz norberaren bizitza soilera bihurtzearena: Hori ere erljiozkari buruzko edo erljio jakin bati buruzko politika da.

Ik. Erljiozko jazarpena; Estatu-erljioa; Konkordatua; Erljio-gerra.

Erljio-zientziak

Etnologian eta Kultur Antropologiaren historian kapitulu garrantzizkoa izan dira erljiozko sinesteak eta ihardunbideak. Beste alorretan bezala, erljioarenean ere erljiozko ohitura, sineste eta jokabide ezberdinak nabarmendu dira historian zehar: horien berri eman izan dute, hain zuzen, antzina-antzinatik bidaialariek, *misiolariek, etab.

Dena dela, erljioen eta erljioaren fenomenoak bere osotasunean eta zabaltasunean

aztertzeke eta azterketa horri metodologia zientifiko eta sistematikoak aplikatzeko orduan, erlijiozkoaren kontzeptu eta ikuspegi dogmatikoak oztipo izan dira luzarora. Horrela, zientzilariaren fedezko aurreritza ez zen erraza gainditzen; eta nor bere fedezko ikuspegi dogmatikotik juzgatu egiten zituen gehiago erlijiozko fenomeno arrotzak, horiek beren izaera objektiboan hartu eta globaltasunean aztertu baino.

F.M. Müller-ek landu zuen lehenik erlijio-zientzien kontzeptua. Hiru fase nagusi bereiz daitezke erlijioaren azterketa zientifikoaren historian:

a) Eboluzionismoa. XIX. mendean erlijioaren sorrera eta eboluzioa izan zen Erlijioaren zientzia gehienik kezkatu zuena. Horrela argitu nahi zuten erlijioen arteko antzekotasuna eta denetan halako elementuak aurkitzea: naturaz-gaindikoaren sinestea, naturaz-gaindiko izaki on nahiz gaitzotetan sinestea, magiazkoa ihardunbideak, bestelako erriotoak.

*Eboluzionismo erlijiozkoaren oinarrian zera zegoen: *Monoteismoa dela eboluzio horren gailurra. Herri primitiboetan aurkitu uste zuten, ordea, erlijioaren sorrerako forma. Bi eskola nagusitu dira zientziako joera horretan: a) *Animismoa (Taylor) eta *totemismoa (E. Durkheim).

b) Funtzionalismoa. XX. mendean gainditurik gelditu zen eboluzionismoaren teoria hura, bereziki erlijioaren sorrera eta jatorria bilatzeko daturik ez dagoelako; eta beste bideak urratzen hasi ziren, erlijioaren fenomenoa ulertzeko.

Erlijioak munduaren interpretazioa ematen dio gizakiari, batetik; baina gizartearen eratzeke eta integratzeko ere balio du erlijioak; azkenik erlijioak betetzen du funtzio psikologikoa ere, bakoitzaren nortasuna eratzean. Hiru aldetako funtzio horiek erlijioaren zientziako azterketako bide berriak ireki dituzte, *erlijioaren soziologiari eta *erlijioaren psikologiari leku emanez.

c) Erlijioaren fenomenologia. Soziologiak eta Psikologiak bakoitzak bere ikuspegitik erlijiozkoa aztertzeke duten eginkizuna ukatu gabe, haren autonomia finkatu nahi izan dute eta hori aztertzeke zientzia autonomoa landu: horrixe deritza *Erlijioaren fenomenologia.

Erlijioak, giza bizitzako agerpeidea eta kulturaren barruko sistema denez, bere espezifikotasuna baduela jabetzetik sortu ziren heremetzigarren mendean erlijio-zientziak, erlijioaren gertakaria eta agerpeidea *teologiaren eta filosofiaren barrutitik atereaz

eta historia orokorrean hari sail berezia eskainiz.

Izan ere, teologiak eta filosofiak erlijio bakoitza beraren barruan edo erlijiozkoa beronen osoan nolabait araupetzera jotzen dute: arauemaileak dira teologia eta filosofia. Erlijioaren zientziek, berriz, erlijioa edo erlijioak berorien gertatzeko izaeran aztertzen dituzte, bakoitzak bere ikuspegitik.

Lautan banatzen dira erlijiorako hurbilketa zientziakoak: *Erlijioen historia, *erlijioaren soziologia eta *erlijioaren psikologia; antropologiaren ikuspegitik nolabait bildu, sintetisatu eta sistematikotu, berriz, *erlijioaren fenomenologiak egiten du erlijiozkoaren alorra, gizon-emakumeen bizitzako zerbait denez.

Erlijioen arteko kidesasuna eta batasuna bilatzea da zientzien helburu nagusietakoa, bakoitzak bere ikuspegitik: horien jatorriko batasuna, edota horien egiturazko antzekotasun funtsezkoa edota erlijio ezberdinetako elementuen edo multzoen arteko funtziozko kidesasuna.

Ik. Erlijioa; Erlijiozko multzoa; Erlijiozko ihardunbidea; Erlijiozko adierazpena.

Paulo Agirrebaltzategi

Erlijioa/Mundua

Ik. Mundua/Erlijioa.

Erlijioagatik diskriminazioa

Halako erlijio jakin baten jarraikaria izateagatik, lege zibiletan edo politikan, kargu, lanbide edo bestelako eginkizun jakinetarako eskubidea kentzea. Erlijiozko jazarpenaren forma izan daiteke horrelako bereizkeria.

Ik. Erlijiozko jazarpena.

Erlijioaren fenomenologia

Erlijio konparatuak izena ere erabili izan dute; baina fenomenologoaren artean, erlijioen arteko konparazioaren metodo fenomenologikoaren lehen fasetzat bakarrik hartzen dute hori. Erlijiozko sinestee, ihardunbideek, adierazpenek eta erakunde sozialek gizaki erlijiodunarentzat duten zentzu esistentziala aztertzea da fenomenologiaren helburua: ez, ordea, teologiaren metodoarekin, hori norberaren fedetik abiatzen bait da, eta bai erlijioen datu objektiboen alderatetik abiatuz, horiek erlijio bakoitzaren jarraikariarentzat duen bizi-zentzua azaltzeko.